

Pako Sodupe

IDAZLEA

Ana Politkovskaya

A

rtikulu xalo bat da hau, bere etxe-atarian eraildako kazetari bat omentzeko. *Freelance* eta gerra-berriemaile dezentetik hiltzen dituzte lanean edo lanetik kanpo, boterean daudentzat traba direlako. Anaren hilketatik urtebetera iduri du hura argitzeko itxaropen-zirritua badela. Errusian laster hauteskundeak egingo dira!

AEBak britainiarren laguntzarekin badakizue Iraken zer ari diren egiten. Eta Al-Kaeda? Bai baina estatubatuarrek eta britainiarrek inbaditzaile. Chomsky-k Bagdad mendebaleko hiri sunita Faluya eta Txetxeniako hiriburu den Grozni bateratu ditu. Biak 250.000 biztanle ingurukoak. Groznin lehen-txeago, Faluyan 2004ko azaroan batez ere. Bietan hiri osoa suntsitua, auzoz auzo, kalez kale, miliziak aitzakia, zibil-len aurka, armarik gabeko jendearen aurka armadunak izugarrikeriak egin eta egin. Ospitaletatik gaixoak atera, bertan behera utzi, hots, Genevako Konbentzioan onarturiko nazioarteko lege guztiak hautsiz.

Errusiaren eta Txetxeniaren arteko bigarren gerrak iraun zuen hiruzpalau urteren buruan berrogei bat aldiz joan zen Ana leku zikin ezin jasanezko hartara. Duxa bat hartzea gauzarik ederrera! Putin gogor kritikatu zuen:

“XXI. mende hasieran Errusiar Federazioaren eskultore buruzagia zalantzarik gabe Vladimir Putin da. (...) Ez dut kexa pertsonalik beraren aurka. Bete behar



DANI BLANCO

duen zereginaz exijentzia oso sinpleak ditut: lehendakariak lan egin behar du bere herria hobea eta aberatsagoa izan dadin. Baina hemen ez da horrelako ezer gertatu. Putinen Errusia moralki zikinagoa da Yeltsinena baino. Zabor-tegi bat dirudi zabor eta sasiz betea.

Egoera arrazoi askoren ondorio da, baina nagusia Txetxeniako bigarren gerra, horrek gizarte guztia hondoratu baitu, Putin barne. (...) Milaka biktima harridura eta protestarik eragiten ez dutenak; anarkia militarrek usteldutako armada; abertzaletasuntzat hartzen den espiritu chauvinista gobernu-aparatua-
ren baitan; estatu indartsuaren erretorika neurrigabea; txetxeniaren aurkako arrazismoa, ofiziala eta herrikoia, Errusiako beste herri batzuetara hedatzen diren metastasiekin...”

Putin ez ezik hark Txetxeniako agintean jarritako Kadyrov klana, bereziki oraindik lehen ministro den Ramzan Kadyrov kritikatu du. Urriaren 7an Moskuko etxeko igogailuan hil zutenean txetxeniaren agintariak herritarrei eragindako torturei buruzko artikuluari azken orraztua ematen ziharduen, eta bi torturatzailearen argazkiak ere bazituen esku artean.

AEBetako eta Errusiako agintariekin lotsatu bezala Ana bezalakoekin harrotzen gara gizaki izateaz. Agur eta ohore Anari eta horrelako kazetariei! ■

« Moskuko etxeko igogailuan hil

zutenean txetxeniaren agintariak

herritarrei eragindako torturei

buruzko artikuluari azken orraztua

ematen ziharduen, eta bi

torturatzailearen argazkiak ere

bazituen esku artean



Juan Ramon Makuso

Transbertsala



Argi dut hitzak ematen diola izana objektuari. Baina ez daukat oso argi hitzen erabileraren inguruan gure egunerokoan egiten dugunarekin. Eta hemen arrisku bat hartzen ari naiz, ez bakarrik orain, idazten ari naizen honetan, baizik eta une oro gauzak izendatzerakoan, ze oso erraza baita bestearena aztertzea, norberarena aztertu gabe. Eta azterketak, norberarengandik hasi behar du, eta hau aplikagarria da, ezinbestean, jendearengana zuzentzen garenean. Eta uste dut, hau, erabat ahaztu egiten dugula gure egunerokoan. Irakurri, entzun, egiten dut sarritan, ustez hitz berriak gurean,

asmatzen egongo bagina bezala. Eta hori ez da horrela. Bat aipatzerakoan, *Prozesua*, niretzat iturri kafkiarra duen kontzeptua, eta gurean ezin kafkiarrra goa. *Transbertsala*, bolo-bolo dabilena, eta ezin mediatikoago. Hau nire garai nerabeetan burukomin bat baino gehiago eragin zidana, beti ere matematikako klase orduetan. Perpendikulari gurutzatzen omen beste gauza edo objektu batekin zen bere definizioa. Nik, nolabait, joan etorrikoan marrazten nuen marra. Behintzat horrela ulertzen nuen. Egun hauetan norabide bakarria duen marra begiztatzen dut nire leihotik begiratzen dudanean. Ze burukomina! ■